

PYRENAICA

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA | FEDERACIÓN VASCA DE MONTAÑA

ZANSKAR

Hendaiatik Donibane Garazira | Parque Natural del Alto Najerilla | Montes de Gistredo
Legarmendi mendigunean barrena | Longyearbyen - Pyramiden
Monte Sinaí | Ainhize Belar | Barranquismo en Albania
Bushcrafters | Nuestra historia · Los tres grandes



Suscríbete a / Harpidetu zaitez

PYRENAICA

Año 2024 (4 números / zenbaki)

Prezioa: 18€



Ingresar el importe en
la c/c ES24 3035-0072-00-0720030006 de Laboral Kutxa
y envía a contacto@pyrenaica.com:
Nombre, domicilio, teléfono y correo electrónico.

Laboral Kutxako ES24 3035-0072-00-0720030006 k/k
dirua sartu eta
contacto@pyrenaica.com helbidera bidali:
Izen deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

LEHIAKETAK · CONCURSOS

XXI CONCURSO DE ARTÍCULOS DE MONTAÑA (2024)

Participan los artículos en euskera o castellano que se publiquen en Pyrenaica durante 2024, seleccionados entre todos los recibidos. Los artículos han de aportar novedades sobre lo publicado en cualquier medio y ajustarse a la normativa de Pyrenaica (ver en www.pyrenaica.com). Serán premiados el primer, segundo y tercer clasificados.

XXI MENDI ARTIKULUEN LEHIAKETA (2024)

2024an zehar Pyrenaican euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzi eta argitaratutako artikuluek parte hartuko dute. Artikuluak originalak izatea baloratuko da eta Pyrenaicaren arauekin bat etorriko dira (ikus www.pyrenaica.com). Lehenengo, bigarren eta hirugarren sailkatuak sarituak izango dira.

XXII CONCURSO DE FOTOGRAFÍA DE MONTAÑA (2024)

Participan las fotografías que se publiquen en Pyrenaica durante 2024, excepto las que forman parte de artículos. Se enviarán como máximo cuatro fotografías digitales no publicadas en otro medio. Tamaño: 18 cm en su lado más largo. Resolución: a 300 ppp/dpi, espacio de color RGB. Formato de archivo: jpg. No se interpolarán los archivos ni se añadirán máscaras de enfoque. Serán premiados el primer y segundo clasificados.

XXII MENDI ARGAZKIEN LEHIAKETA (2024)

2024an zehar Pyrenaican argitaratutako diren argazkiek parte hartuko dute, artikuluetan agertzen direnak izan ezik. Gehienez lau argazki bidaliko dira beste komunikabide batean argitaratu gabeak. Tamaina: 18 cm bere alderik luzeenean. Erresoluzioa: 300 dpi-tan, RGB kolore-espazioa. Artxibo-formatua: jpg. Ez dago artxibategiak tartekatzerik ezta enfoke maskarak gehituzkerik ere. Lehenengo eta bigarren sailkatuak sarituak izango dira.

ENVÍO DE ARTÍCULOS Y FOTOGRAFÍAS

INCLUIR: Nombre y Apellidos del autor/a, dirección, email y tfno de contacto.
ENVIAR A: contacto@pyrenaica.com (Asunto: Concurso Pyrenaica) ó a: Pyrenaica. Julián Gaiarre, 50-trasera. 48004 Bilbao.
Los trabajos recibidos quedarán en propiedad de Pyrenaica y no podrán publicarse en otro medio hasta su devolución. Los premios se entregarán en la Gala del Montañismo Vasco de 2025. La participación en el concurso implica la aceptación de estas bases; las dudas serán resueltas por el Jurado.

ARTIKULU ETA ARGAZKIEN BIDALKETA

Izen-deiturak, helbidea, e-posta eta harremanetarako telefono zenbakia.
BIDALI: contacto@pyrenaica.com (Gaia: Pyrenaica Lehiaketa) edo: Pyrenaica. Julian Gaiarre, 50 trasera. 48004 Bilbao.
Aurkeztutako lan guztiak Pyrenaica aldizkariaren jabetzapean geratuko dira, beste edozein hedabidetan argitaratzerik egongo ez dela, harik eta itzuliak izan arte. Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa 2025eko Euskal Mendizaletasunaren Galan egingo da. Lehiaketan parte hartzeak berak, honako oinarri hauek onartzen direla adierazten du. Oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantzak Epaimahaiak ebaziko ditu.

100

Betidanik betiko



1924-2024

P23 530 TREKKER QL - Precio 58.00 €



Telescópico 3 sectores, se ajusta de 64-135cm, aluminio anodizado 7075, punta de widia, tapa de punta, ajuste rápido de abrazadera, mango de esponja densa con correa ligera. Se suministra con soporte para bastones y doble juego de ruedas de trekking + nieve.

P23 528 APPROACH - Precio 88.00 €



Plegable o de solo 33cm cuando está cerrado, se ajusta de 110-130cm, aluminio anodizado 7075, punta de widia, tapa de punta, ajuste rápido de abrazadera, mango extendido de esponja densa con correa ligera. Se suministra con soporte para bastones y doble juego de ruedas de trekking + nieve.

P23 529 TRAVELLER - Precio 88.00 €



Plegable o sólo 33cm cuando está cerrado, se ajusta de 110-130cm, aluminio anodizado 7075, punta de Widia, puntera, ajuste rápido de abrazadera, asa de Nordic Walking con correa de liberación rápida. Se suministra con soporte para bastones y doble juego de ruedas de trekking + nieve.

INFORMACIÓN Y PEDIDOS:

Whatsapp 655 718 626 Mail: Karlos@hazten.es web: www.hazten.es

VIPOLE
HIGH QUALITY POLES

Montañas cercanas y lejanas



Gertuko eta urrutiko mendiak



5 EDITORIAL · EDITORIALA

6 HENDAIATIK DONIBANE GARAZIRA

GR-10AREN ARRASTOAN
Mikel Arrizabalaga

14 CIRCULAR POR EL PARQUE
NATURAL DEL ALTO NAJERILLA

Iñigo Jáuregui Ezquibela

22 MONTES DE GISTREDO

Begoña Fernández Díaz · Paulo Etxeberria Ramírez

28 LEGARMENDI MENDIGUNEAN BARRENA

MENDITXIKI
Iosu Alberdi Balzategi

30 LONGYEARBYEN - PYRAMIDEN

ZEHARKALDI POLARRA SVALBARDEN
Jorge Gorosarri eta Gontzal Martínez

34 MONTE SINAÍ

EL MONTE DE MOISÉS
Matilde Sanz y Lara Longa

38 FOTOGRAFÍA

Josu Fernández · Marcos Ramos

41 ZANSKAR 2023

Joseba Iztueta

46 AINHIZE BELAR

KIMU BERRIA
Ioritz Gonzalez Lertxundi

Beste diziplinak eta historia



- 50** ALBANIA
BARRANQUISMO EN LA ÚLTIMA FRONTERA DE EUROPA
Joseba Azketa
- 54** BUSHCRAFTERS
LOS NÓMADAS DEL BOSQUE
Koldo Iturriagagoitia
- 60** NUESTRA HISTORIA (IV):
LOS TRES GRANDES
Antxon Iturriza

Actualidad Berriak



- 62** EUSKAL MENDIZALETASUNAREN XXVII. GALA
XXVII GALA DEL MONTAÑISMO VASCO
- 64** MENDI LASTERKETAK
Alberto Mella Garate
- 66** NOTICIAS EMMOA ALBISTEAK
- 67** EMF BERRIAK · NOTICIAS FVM
- 72** MEKNF BERRIAK · NOTICIAS FNDME
- 73** PUBLICACIONES · ARGITALPENAK
- 74** AUDIOVISUALES · AUDIOBISUALAK
- 75** XAVIMOUNTAIN

PUBLICACIÓN TRIMESTRAL DE
EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Se publica desde 1926
OCTUBRE-NOVIEMBRE-DICIEMBRE
N.º 293 - 4ª de 2023

Edita: Euskal Mendizale Federazioa
Presidente: Zigor Egia
Director: Iván Ruiz

Equipo de Redacción: Paulo Etxeberria, Begoña Fernández, Ioritz Gonzalez, Iñigo Jauregui, Xabi Mujika y Fernando Tijero

Administración: Gotzone Rodríguez
Redacción, Administración y Publicidad:
Julian Gayarre, 50 - 48004 Bilbao
Teléfono: 944 598 102

Horario: De lunes a miércoles
de 16:00 a 19:00 horas.

Mapas, maqueta y preimpresión: SUA EDIZIOAK

Azaleko argazkia: Zanskarreko diedro perfektuetako batean Ibon Mendia eskalatzailea. Joseba Iztueta

Diseño: Amel Mendizabal [Sua Edizioak]

Imprime: Mccgraphics, S. Coop.
Embolsado: Publimark

E-mail: contacto@pyrenaica.com

[@RevistaPyrenaica](https://www.facebook.com/RevistaPyrenaica)
[@revista.pyrenaica.aldizkaria](https://www.instagram.com/revista.pyrenaica.aldizkaria)

Depósito Legal: BI-858-1979
ISSN: 0212-5676

© PYRENAICA

La propiedad intelectual y el copyright de los textos y fotografías pertenecen a sus autores/as por lo que, salvo acuerdo expreso con ellos/as o con Pyrenaica, queda prohibida toda reproducción total o parcial de los mismos.


Testu eta argazkien jabetza intelektuala eta copyright-a egiteenak dira, beraz egile edota Pyrenaicaren baimenik gabe, debekatuta dago artikuluen zati baten edo erreprodukzio osoa egitea.

www.pyrenaica.com

EUSKAL HERRIKO MENDIEN KATALOGOA

CATÁLOGO DE CIMAS DE EUSKAL HERRIA 2018

EDIZIO EGUNERATU BERRIA · NUEVA EDICIÓN ACTUALIZADA



15€

JENDEARENTZAKO
SALNEURRIA · PVP

Ingresar el importe en la c/c ES24 3035-0072-00-0720030006
de Laboral Kutxa y envía a contacto@pyrenaica.com:
Nombre, domicilio, teléfono y correo electrónico.

Laboral Kutxako ES24 3035-0072-00-0720030006 k/k
dirua sartu eta contacto@pyrenaica.com helbidera bidali:
Izen deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

O T R O M O D E L O E S P O S I B L E

Durante un tiempo, algunos montañeros entre los que me incluyo, fuimos lo suficientemente ingenuos como para pensar que el deporte que practicábamos era más noble o ético que otros deportes. O que su marginalidad garantizaba, hasta cierto punto, la pureza de sus valores y un cierto altruismo asociado a una finalidad que, a la postre, se reducía a ascender montañas por el mero placer de hacerlo, por la alegría y la satisfacción que se experimentaban tras hollar la cima. Aquellos tiempos pasaron. Los acontecimientos sucedidos a lo largo de este pasado verano en el K2 y entre los que destacan la muerte en vivo y en directo del porteador baltí Muhammad Hassan, su masificación y la proliferación de turistas de montaña y agencias nepalíes ávidas de éxitos y clientes, nos demuestran que el alpinismo o esta versión del mismo, apenas se diferencia del resto de deportes. Es lo que toca cuando se vive inmerso en un sistema en el que sólo se valoran la eficiencia, la productividad y la rentabilidad económica; en el que la gratuidad y el desinterés son despreciados.

Sin embargo, sigo pensando que otro modelo es posible, un modelo que tal vez algunos tachen de conservador pero que creo que produce muchas más satisfacciones y alegrías personales que el que nos venden los titulares de prensa y las agencias de noticias. Un modelo alejado de los récords, la velocidad, la mercantilización y tasación de las cumbres, los fortísimos desembolsos económicos o las reglas de la oferta y la demanda. Uno presidido por la sostenibilidad, la cercanía, el respeto, la falta de ambiciones, el disfrute y, por qué no, la lentitud. Al fin y al cabo, así fue como los pioneros del alpinismo y nuestros propios padres se iniciaron en la montaña alcanzando grandes dosis de felicidad. ¿Para qué queremos más?

No sé si las palabras anteriores conseguirán convencer a nadie o hacer que algunos recapaciten sobre la deriva a la que estamos asistiendo y la conveniencia de rectificar y escapar del estrecho marco en el que algunos quieren encerrar este deporte. Si no es así, espero que la lectura de los artículos de esta nueva edición de Pyrenaica sirva de inspiración y acicate para recorrer los senderos por los que transitaron nuestros antepasados. Unos senderos no sujetos a compraventa que seguirán dándonos momentos inolvidables.

REDACTOR DE
PYRENAICA

PYRENAICAKO
ERREDAKZIO KIDEA



Iñigo Jauregui Ezquibela

B E S T E E R E D U B A T J A R R A I D A I T E K E

Garai batean, zenbait mendizalek gure kirola beste batzuk baino zintzoagoa edo etikoagoa zela pentsatzeko bezain inozoak izan ginen, ni neu barne. Jokaleku ezberdinean egoteak balio jakin batzuen araztasuna eta nolabaiteko altruismoa bermatzen zuela, neurri batean behintzat. Helburua, azken finean, mendira joatea zen, mendia igotzeak eskaintzen zuen plazer hutsagatik, gailurra zapaltzeak ekartzen duen gogobetetze eta pozagatik. Garai haiek igaro ziren. Joan den udan K2n izandako gertakariak, esaterako Muhammad Hassan baliar garrailariaren zuzeneko heriotzak, edo mendiko turistak ugaritzeak eta masifikazioak, edo bezero bila arrakasta gosez aritzen diren Nepalgo agentziak ugaritzeak, besteak beste, adierazten dute alpinismoaren egiteko modu hori ez dela beste hainbat kirolen ezberdina. Horixe gertatzen da efizientzia, produktibitatea eta errentagarritasun ekonomikoa bakarrik aintzat hartzen diren sistema batean bizi garenean; sistema horretan, doakotasuna eta esku-zabaltasuna mespretxatu egiten dira.

Hala ere, beste eredu bat posible dela pentsatzen jarraitzen dut, batzuek kontserbadoretzat jo dezaketen eredu bat, baina, nire ustez, komunikabi-deetako lerroburuek eta albiste-agentziek saltzen digutena baino askoz gehiago poztzen eta asebetetzen gaituena. Errekorretatik, abiaduratik, gailur-merkantilizaziotik eta tasaziotik, diru-ekarpen handietatik edo eskariaren eta eskaintzaren arauetatik urrun dagoen eredu. Iraunkortasuna, hurbiltasuna, errespetua, anbiziorik eza, gozamina eta, zergatik ez, abiadurarik gabe eta lasai ibiltzea baliosten dituen eredu. Azken finean, horrela hasi ziren alpinismoaren aitzindariak eta gure gurasoak mendian, eta zoriontsuak izan ziren. Zertarako nahi dugu aldatu?

Ez dakit arestian adierazitako hitzek inor konbentzitzen duten. Ez dakit bizitzen ari garen noraezaz inor hausnarketa bat egitera bultzatuko duen, edo batzuek kirol honi ezarri nahi dioten esparru estu bezain itxitik ihes egiteari buruz gogoeta egingo ote duen.

Hala ez bada, espero dut Pyrenaicaren ale honetan irakurgai dauden artikulua gure arbasoak ibili ziren xendetan ibil gaitezen inspirazio eta pizgarri izatea. Salerosketaren menpe egongo ez diren xendak; une ahaztezinak eskainiko dizkiguten xendak.

HENDAIATIK DONIBANE GARAZIRA

GR-10AREN ARRASTOAN

TESTU ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zerikusia duten makina bat artikulua eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

Gure herriko mendietan maiz ikusi ditugun bide-seinale zurigorriek erakutsi ohi digute aukeratu beharreko norabide zuzena. Horietako bi, Euskal Herriko Pirinioak bere osotasunean zeharkatzen dituztenak dira, GR-10 eta GR-11 ibilbide luzeak hain zuzen ere. Lehena Iparraldeko lurretan zehar hedatzen da, eta bigarrenak, berriz, Hegoaldeko herri, baso eta mendiak zeharkatzen ditu.

Artikulu honetan, GR-10ak Hendaiatik Donibane Garaziraino marrazten duen bidea erakusten da, Bizkaiko Golkoko itsas-bazterretik atera eta Nafarroa Behereako hiriburu ederrean amaitzeko. Mendien magaletan barreiatzen diren borda, baserri, zelai, baso, tontor eta abarretan murgildu gara tarteka bertako elezahar eta istorioak gogora ekarriz. Gure herri zahar hau ziprztintzen duten hamaika paisaia ederrez gozatzeaz gain, gure kulturaren eta historiaren pasarte esanguratsuak gogora ekarri ditugu, hots, euskararen herria ezagutzeko eta maitatzeko hamaika arrazoi.

Abadiako Dunbak edo Bikiak



HENDAIA

Zeharkaldi honen lehen zatia nahikoa laua da eta ez du ahalegin berezirik eskatzen. Hondarraitz hondartzaren beste muturrean dauden Bikiak edo Dunbak izenez ezagutzen diren bi haitzei bizkarra eman eta martxan jarriko gara. Txingudiko badiaren ertzetik aurrera egin eta Hendaia zeharkatuko dugu kale artean ibiliz. GR-10aren bide-seinale zurigorriek erakutsiko diguten norabidean, herriko azken urbanizazioak atzean utzi eta zelaien artetik igaroko gara, muino txikien gainetik. Atzera begiratu, Txingudiko badia eta Hendaia ikuspegi ederraz gozatzeko parada izango dugu, beste aldera, berriz, garoz estalitako muino berdeak.

Hego-ekialderantz joko dugu segidan, D810 errepidea zeharkatu eta berehala, landa-errepide txiki bat hartu eta urratsez-urrats Biriaturko auzo de Garlatzera helduko gara. Auzoa atzean utzi eta A63 autobidea zeharkatzen duen tuneletik kilometro bat egingo dugu Biriatura iristeko. Etxe ederren artean malda txiki bat igo eta San Martin elizaren aurrean dagoen plazaxora igoko gara, udaletxea ere bertan ikusiko dugu.

BIRIATU


San Martin elizaren ondotik igaro, hile-riaren hormen ondotik pasa eta berehala, Kukutxoa etxearen aurretik pasatu eta



Txingudiko badia Xoldoko gainetik

gero, GR-10ari dagozkion bide seinaleek erakusten diguten norabidean igotzen hasiko gara. Laster, bide baliztua utzi, eta aurrez aurre ditugun Perdrixko haitzen ondora joko dugu, malda pikoari aurre eginez. Argindar poste erraldioen azpitik igaro eta gero, xenda nabarmenetik egingo dugu aurrera. Bide nagusiarekin bat egin, eta gandar biribilduan zehar erraz helduko gara Xoldoko gaineko tontorrera. Ikuspegi zabalaz gozatzeko tartea har-

tuko dugu. Euskal kostaldeko herrien eta gertuko mendien ikuspegi bikaina izango dugu. Pirinioetako zeharkaldia egiteko lehen oztopoa den mendiari bizkarra eman, eta Osingo lepo aldera jaisten hasiko gara, malda bizian. Segidan, Bizkarsoro leporantz jaisten den bide zabala hartuko dugu. Horra heltzean, gertu dagoen lakura zuzentzen den pista zabala gure ezkerrean utzi, eta Manddalerantz igotzen dena hartuko dugu.



Euskal kostaldeko herrien eta gertuko mendien ikuspegi bikaina izango dugu

Faalegiko gaina ekialdetik igaro eta Jones lepora erraz ailegatuko gara. Azken aldapa ez da oso luzea, eta urak higatu duen bidezidorra jarraituz, Manddalera iritsiko gara. Han, guda garaiko lubakien aztarnen ondoan, Lapurdi eta Nafarroa banatzen dituen 9. mugarria eta gutunontzia aurkituko ditugu. Iparraldean, Txingudiko badien hasi, eta Errobi ibaiaren bokaleraino marrazten den kostaldean barreiaturik, Lapurdiko herriak han eta hemen ikusi ahal izango ditugu. Mendebalderantz begiratuz gero, Aiako harriko granitozko tontor bikainak, eta, ekialdean, berriz, Larhun mendiko gailurrean, ostatu erraldoiak, TDFko antena itzela... turismo eta teknika-ren izenean eraikitako monumentu eroak. Azkenik, hegoaldean, Saioa, Mendaur, Arxuria eta Nafarroako mendi anitz.


IBARDIN

Begien aurrean dugun guztia identifikatzen luze joko genuke, eta, gure interesa ase ostean, martxan jarriko gara. Ekialderantz hedatzen den gandorrari helduko

diogu. 10. mugarria atzean utzi ondoren, garolekuaren ondotik doan aldapan behera jaisten hasiko gara. Azkar galduko dugu altuera, eta, haitzen artean bidezidorra bilatu aurretik, Manddaleko harrespilaren ondotik pasatuko gara. Historiarreko monumentu megalitiko horretatik gertu, egungo zibilizazioaren aztarnak daude: Ibardingo bentak. Dendak, tabernak, jatetxeak, aparkaleku mordoa... ohi-koa da inguru hauek asteburuetan jendez mukurua egotea, egun-pasa egiteko leku aproposik ez balego bezala.

Beratik datorren errepidea gurutzatu eta, berriz, bide ederrari eutsi eta aurrera egingo dugu, lehenik ipar-mendebalderantz eta gero, ekialderantz. Hasierako malda gogorra berehala leunduko da eta bideak Intzolako paraje ikusgarrietara eramango gaitu. Bailaran murgiltzean, gerizpea, freskotasuna eta Intzolako erreka ur gardenek harrera egingo digute. Erreka ondoko galtzadatik (Napoleonen galtzada deiturikoa) jarraituko dugu Intzolako bentatik gertu dagoen zubitik erreka gurutzatzeko. Beste aldera pasa eta maldan gora abiatuko gara Deskargahandiko lepora iritsi arte. Larhunera zuzentzen den bidea eskuinera utzita, aldapan behera abiatu eta Olheta erreka ondoan dagoen Manttobaita Gite d'Etaperaino jaitsiko gara.

Mehatze lepotik gertu dagoen harrespila



MANTTONBAITA

Manttobaita aterpetik gertu dagoen aparkalekutik abiatu eta honen ondotik ateratzen den bide nabarmenetik martxan jarriko gara. GR-10aren marka zurigorriak lagun pixkanaka altuera hartuko dugu. Basotik atera eta berehala ikusiko ditugu Larhun mendiaren gailurra desitxuratzen dituzten antenak. Konturatu orduko, Errepausuko lepora iritsiko gara. GR-10aren bide-seinaleek erakusten diguten norabidean jarraituz, berehala iritsiko gara Larhun mendiaren tontorreraino igotzen den tren txikiaren trenbidearen ondora. Hau gurutzatu eta gero, Altsanga muinoaren oinean dagoen bidegurutzeraino jaitsiko gara.

Saran 14 otoizleku daude eta horietatik zazpi, Erdi Aroko galtzada zaharrea daude

Trenbidea zeharkatu eta sakanetik jaisten den bidea hartuko dugu hego-ekialderantz. Otadien arteko tarte baten ondoren, pista zabal batetik jarraituko dugu, amildegiaren ezkerreko hegaletik maldan behera. Larhun mendiaren ezproi harritsuak azpiko aldetik inguratu ondoren, asfaltozko errepide batera iritsiko gara eta bertatik jarraituko dugu pista eta hartxintzarrezko bidezidor batzuk hartuz. Asfaltatutako bidetik jarraitu eta berehala iritsiko gara baserri baten ondora eta gertu, metro batzuk gorago, otoizleku zaharrena den San Antonekoa ikusiko dugu basoan txertaturik. Berrito baserrira jaitsiko gara eta honen ondotik ateratzen den lurrezko pistatik (GR-10aren bide-seinale zurigorriak) iturrira jaitsiko gara. Bertakoek diotenez ur honek begietako gaitzak eta ekzemak sendatzeko balio omen du. Lurrezko pista amaitu eta berriro etxe ederren artean zabaltzen den errepidera aterako gara. Gertu ikusiko dugu Sara herria eta bere elizako dorrea.

SARA

Herrian 14 otoizleku daude eta horietatik zazpi, Erdi Aroko galtzada zaharrea aurkituko ditugu herrigunetik oso gertu. Tradizioaren arabera, otoizleku hauek XVII. mendean altxatu ziren Sarako itsasgizon eta arrantzaleen eskariei men eginez. Otoizleku



Arrantzeko Ama Birddinaren kaperaren ondoko hilarriak

bat monumentu erlijioso txiki bat da eta santu bat gurtzeko eraikita dago. Sara, eraikin erlijioso gehien duen euskal herria da.

Turismo bulegoaren aurrean, pixka bat gora doan kalea hartuko dugu eta, amaieran, oinezkoentzako bidetik jarraituko dugu. Harriztatuko galtzadatik San Petri otoizlekuraino joango gara. Eskailerak igo eta zolatutako bide horretatik jarraituko dugu D306 errepidera iritsi arte. Errepidean 400 bat metro egin eta ezkerrera egingo dugu. Kanpina eskuinera utzi eta zubia zeharkatuko dugu. Bide honek lehenengo bentetara eramango gaitu. Bi kilometro jarraitu eta ezkerretik ateratzen den pista hartuko dugu 64. mugarriaren albotik pasatuz. Errobi ibaia inguratzen duen pista ongi seinalez tatu honek Deabruaren Zubira eramango gaitu. D4 errepidea zeharkatu eta oihanpearen artean jarraituko dugu ibaiaren ertzetik. 600 metro geroago, ibaia hormigoizko zubi batetik zehar-

katuko dugu, arrain-haztegia inguratu eta goranzko bidezidor batetik jarraituko dugu errepide txiki batera iristeko. Ainhua herriaren sarreraraino jarraituko dugu.

Mehatzeko lepoan Lapurdi eta Nafarroa Garaiko lurraldeak elkartzen dira

AINHOA

Herriko elizaren aurrean ekialderantz ateratzen den bidea jarraituko dugu eta, Gurutze-bidean, GR-10aren bide-seinaleei jarraituko diegu segidan. Hasieran asfaltatuta dagoen eta ondoren pista bihurtzen den bidetik ordubete baino gutxiago behar izango dugu zuhaitzi batean babesturik dagoen ermitara heltzeko. Gertu, hiru gurutze erraldoi hilarritz inguratuz. Arrantzeko Ama Birddinaren (Arantzako

Ama Birjina) kaperaren honen istorioa irakurri ahal izango dugu bertan dagoen testu batean: *"Iturri miragarri baten ondoan, artzain bati agertu zitzaien, Ama Birddinari eskainia zaio Kaperaren hau. Ez dakigu noiz gertatu den agertze hori, baina erraite ahal dugu Oñateko (Gipuzkoa) Arantzazuko Ama Birddinaren agertzearekin berdintasun aunitz badituela. Aspalditik Ainhoarrak eta, inguruko herrietako biztanleak igaiten dira kaperarat prozesioan, Mendekosteko astelehenean, meza nagusia entzuteko. Mendian den kaperaren ttikitik, Arantzeko kaperaraino, 1886an egin 14 gurutzeko bide bat bada. Bide honen ondoan, harpetxo batean, Ama Birddinaren itxuraren batean, iturriño bat agertzen da. 1898an San Mattin Etchartek eraikiarazi zuen kalbario bat kaperaren aurreko ordozi ttikian, geroxeago 1900ean, Ama Birddinaren itxura bat emana izan zen, kaperaren aurreko kaperatxoan, eta berrikitan (2001)*



hilharriak (gizonarriak) emanak izan dira kalbarioaren inguruan". Kapera atzean utzi eta Errebi mendiaren magalean hedatzen den GR-10aren bide-seinale zurigorriek erakusten diguten norabidean abiatuko gara. Mendia inguratu, Soporro tontorrera zuzentzen den bidea ezkerrera utzi eta Gainekoborda lepora jaitsiko gara, izen bera daraman bordaren ondora.

MEHATZE

Bizkailuze eta Gorospil mendien hegalak zeharkatzen dituen pista belartsu eta ia horizontala hartuko dugu. Bidezidorrak Esteben Bordara eramango gaitu segidan Veauxeko lepora jaisteko. GR-10ari dagozkion bide-seinale zurigorriek erakutsiko diguten bidea jarraituz, berehala hasiko gara maldan gora. Errepidera iristean ber-

tatik Mehatzeko leporantz igoko gara. Leku honetan Lapurdi eta Nafarroa Garaiko lurraldeak elkartzen dira eta inguruan Burdin Aroko zenbait harrespil daude. Metro batzuk beherago, garotan etzanda dagoen iruinarri ederra. Bidetik at, Artzamendi aldera metro batzuk igo eta harrespil osatuenetako bat aurkituko dugu, eta bere zazpi harri handiek osatzen duten zirkuluaren barruan "81" mugarria.

Bidera itzuli eta garo artean zabaltzen den bide zabala jarraituko dugu. "82" eta "83" mugarrien ondotik pasatzean ezkerrean pagadi trinkoa lagako dugu. Bat batean, aurrez aurre panoramika ikusgarria zabalduko zaigu: Iparlako harresi luzea eta Alkaxuriko piramide zorrotza. Aurrera segi eta, Zelaiburuko lepora iristean, gure mendean sakan zirraragarria amaitzen den lekuan, Aritzakun eta Urritzateko haranak

elkartzen diren Sumutsuko borda ikusiko dugu. Atsedena hartu ostean, bidezidorrari helduko diogu eta oso pikoa den malda sigi-sagan jaisten hasiko gara.

Iparlako harresia bi zirko bikainek mugatzen dute: Gapelu eta Talatzekoa

Itsusiko lehen haitzera igotzeko garo artean zabaltzen den xenda gure eskuinera utzita, GR-10aren markak jarraituko ditugu Arruxiako baserrira iristeko, aurrez, Harpeko Sainduaren koba bisitatzeko aukera izango dugularik. Koba honetan dagoen estalaktita bati eman zaion deitura da eta duen giza itxura santu bati omen dagokio.



Sinesmenaren arabera, estalaktita honetik isurtzen den urak larruazal eta begien gaixotasunak sendatzen ditu. Baserrian hasten den errepidetik zubiraino jaitsiko gara eta Baztan ibaiaren eskuineko ertzaren ertzetik jarraitzeko. Bigarren zubira iritsi aurretik, Bidarrairaino doan bidezidorra hartuko dugu.

BIDARRAI

Bidarrai eta Baigorri artean hedatzen den Iparlako harresia bi zirko bikainek mugatzen dute: Gapelu eta Talatzekoa. Gandor luze honek, Errobi ibaiaren ezkerreko ertza menderatzen du Bidarrai eta Baigorri artean. Garo, belar eta txilarrek jazten duten harresi honen kolorea sasoiaren arabera aldatu egiten da, udaberrian eta udan berdez janzten dira magalak, baina

udazkena heltzean, garoa gorritu eta erabat itxuraldatzen da. Bi garaietan bisitatzeari merezi du

Herriko frontoiaren ondotik abitu eta, berehala ikusiko ditugun bide-seinale zurigorriak (GR-10) bidelagun izango ditugu Baigorriara iritsi arte. Hau da Iparlako harresia zeharkatzeko gehien erabiltzen den bidea, oso nabarmena da eta bakarrik lainoa sartuz gero ibili behar da kontu handiz.

Urdakobordia baserriaren ondotik pasa eta Olarrepeako bidea ezkerrean utzi ondoren, Harriondi inguratu eta Pagalepora helduko gara. Lehen atsedena hartuko dugu hemen, zintzurra freskatu eta gandorrari helduko diogu segidan. Inguru harritsu bat zeharkatu eta mendi hegaletik Talatzeko zirko estua ikusi ahal izango dugu. Bertan hartzen du altuerarik handiena harresiak, 350 metroko malkar zo-

rabiagarriak. Aurrera segi, Larrateko hegia inguratu eta Iparlako lepotik gertu ikusiko dugu gailurra.

IPARLA

Presarik gabe Nafarroa Behera eta Nafarroa Garaia banatzen duen gandorrean zehar Iparlara igotzen hasiko gara. Azken metroak belarrezko alfombra zapalduz beteko dugu. Hamaiketako egin baino lehen merezi du tarte luze bat hartzea, gure gorputza poliki jiratzen hasi eta 360°ko itzulua emanaz ikusten dugunaz gozatzeko. Iparlako tontorra talai paregabea da Euskal Herriko mendi gehienak ezezik, iparraldeko kostako eta barruko herriak ikusteko.

Jarraitzeko unea iristean, argazki pare bat atera, traste guztiak jaso eta hegoalderantz ibiltzen hasiko gara. GR-10ari



Baigorri herria eta Etxauzko gaztelua

dagozkion bide-seinaleak jarraituko ditugu eta lepo txiki batera heltzean metro batzuk bete beharko ditugu Tutuliako gailurrera iristeko. Iparla eta Tutulia dira Gapeluko zirkoa mugatzen duten bi gailurrak. Putreek ere lekua bilatu dute zirkon honetako malkarretan. Altuera azkar galduko dugu eta Harrietako lepora iristean, Urdozera doan bidea ezkerrean utzi eta igotzen hasiko gara. Astateko tontorrean gertuago ikusi dugu helmuga, baina oraindik izen bera duen lepora jaitsi beharko dugu Buztanzelaira igotzeko azken maldari aurre egiteko.

Nafarroa Behera eta Nafarroa Garaia banatzen duen gandorrean zehar Iparlara igoko gara

Buztanzelako tontorrera heltzean, tentazioa izango dugu aurrera jarraitzeko, Izpegiko mendateraino jarraitu eta zeharkaldia oso osorik burutzeko, baina Baigorri herria dugu zain eta bide-seinale zurigorriek kasu eginez herrirantz abiatuko gara. Lepora jaitsi eta Aintziagako harkaitzak gure eskuinera utziz, Atxueneako errepide aldera joko dugu. Ibilbidearen azken zati hau luzea

eta aspergarria suertatuko zaigu, baina Iparlako gandorrean zehar hartu dugun gozatuak dena ahantzi araziko digu. Baigorriko erdigune bihurgunetsua kale-errepide bakarretik zabaltzen diren etxeek osatzen dute, eta bertatik kilometro eta erdian ibiliko gara elizaren ondora ailegatzeko.

BAIGORRI

Udaletxearen aurretik abiatu eta GR-10aren bide-seinaleek erakutsiko digute jarraitu beharreko bidea. Eskuinean Iparlako harresia goititzen delarik berehala



Donibane Garazi

berria hartzen du, ezkerretik igotzen da Oilarandoiko magalean zehar. Lepora iris-tean, pistatik igotzen jarraituko dugu Ur-dantzia lepora heldu arte. Aldapa goxoak erraz eramango gaitu Munhoako tontorre-ra. Nafarroa Behereko hiribururantz joko dugu segidan. Beharriako haitzen ondotik marrazten den aldapa pikotik erraz galduko dugu altuera eta hau leuntzen denerrako Lasa herriraino eramangon gaituen errepidera aterako gara. Beste hiru kilometro beteko ditugu Donibane Garaziko hiribildu zaharrera ailegatzeko.

harren artean murgildu eta bere eraikin historikoak ezagutzea. Ondare militarra osatzen duten Mendiguren gaztelua eta Donibaneko zitadelaz gain, harresien barruan lehen Zubiburuko Andredena Maria bezala izendatzen zen eliza dago, gaur egun Jasokuntza eliza deitua. Gortorlekutik eta Errobi ibaitik gertu dagoen elizak, Erdi Aroko harresiaren zati bat osatzen du eta, bere ondoan dagoen eraikinak Andredena Mariaren ospitalea izan zen mende askoan. Elizaren dorreak, zubi erromatarra Zitadelako karrika ederrarekin lotzen du. Merezi du bertako karrketan murgiltzea, plazak, zubiak eta dauden bost ateak ezagutzea, eraikin bakoitzak iraganean murgiltzeko aukera ematen baitio bisitariari.

DONIBANE GARAZI

helduko gara Aldudetik datorren Errobi ibaiaren adarra gainditzeko zubira. Gure eskuinean zubi "erromatarra" ikusiko dugu. Metro gutxi batzuk bete eta ezkerretik jarraitu, errepidea azpitik pasa eta maldan gora jarriko gara. Bidegurutzetan seinale zurigorriek lagunduko digute bide zuzena aukeratzeko.

Asfaltatutako bidea amaitu eta lurrezko pista batetik igotzen jarraituko dugu basoan zehar. Balizatutako bidearen malda gogorrenak gainditu eta gero, Ahartza leporaino igotzen den errepide txikira iritsiko gara. Puntu honetan, GR-10ak norabide

Zeharkaldi hau amaitu eta gero, merezi du Nafarroa Behereko hiriburuko kale za-

HENDAIATIK DONIBANE GARAZIRA					
Etapak	Nondik	Nora	Luzera	Desnibela +	Desnibela -
1	Hendaia	Manttonbaita	22,1	1.091	991
2	Manttonbaita	Ainhoa	21,2	732	710
3	Ainhoa	Bidarrai	21,4	918	891
4	Bidarrai	Baigorri	17,3	1.256	1.241
5	Baigorri	Donibane Garazi	19,9	1.125	1.131
			101,9	5.122	4.964




Iñigo Jáuregui Ezquibela
(Bilbao, 1962)

La montaña es uno de los alicientes que animan y dan sentido a su vida. Buena parte de lo que es, se lo debe a ella. El mejor legado que heredó de su padre fue esta pasión, una pasión que nunca se sacia y es inmune al paso del tiempo.

CIRCULAR POR EL PARQUE NATURAL DEL ALTO NAJERILLA

Cuando se publiquen estas líneas es probable que la comunidad autónoma de La Rioja cuente en su haber con un nuevo y flamante parque natural, el denominado Parque Natural del Alto Najerilla. Si las previsiones no fallan y las negociaciones emprendidas por la Administración autonómica con ganaderos, cazadores y alcaldes de los pueblos afectados llegan a buen término, es muy probable que la práctica totalidad del territorio de la comarca de las Siete Villas (45 111 ha) sea amparada por esta figura de protección¹.

Este espacio natural, situado junto al curso superior del río Najerilla, en la confluencia de las sierras de Urbión y Neila con Cameros y la Demanda, acoge la mayor diversidad biológica de toda la región, una variabilidad que afecta tanto a la fauna como a la flora. La primera se manifiesta gracias a la presencia de aves necrófagas entre las que destacan el buitre negro y el quebrantahuesos, cérvidos, jabalíes, visones europeos, desmanes y la existencia de varias parejas de lobos. La segunda a través de la proliferación de formaciones arbóreas de carácter singular (bosques mixtos de frondosas, fresnedas de montaña, acebales...); de una excelente representación de los cinco pisos de vegetación que se extienden por el resto de la Comunidad: encinares, robledales, hayedos, pinares silvestres y pastizales de alta montaña y de especies endémicas o relictas de enorme valor como son el loro de Portugal (*Prunus lusitanica*), el grosellero de roca (*Ribes petraeum*) o la androsela (*Androsace riojana*). Los atractivos anteriores van acompañados por otros no menos importantes como son la existencia del complejo lagunar más importante de La Rioja (lagunas de Urbión); la de un extenso y variado patrimonio etnográfico vinculado a la trashumancia y a la actividad minera y,



finalmente, la de una baja o bajísima densidad de población que, según el padrón de 2019, ascendía a 0'9 habitantes por km² (416 habitantes).

Nuestra propuesta consiste en recorrer durante tres días la parte más agreste de este territorio siguiendo parcialmente el curso de los ríos que lo atraviesan (Portilla,

Urbión, Ormazal y Brieva) y una formación geológica en forma de barra de unos 30 kilómetros de longitud y varios centenares de metros de anchura que se extiende entre Cabeza Herrera (SW) y Ortigosa de Cameros (NE). Este afloramiento compuesto por calizas, calizas arenosas, margas y dolomías coincide con la que fue una de las

1. Nota de la redacción: la creación del Parque Natural del Alto Najerilla fue aprobada por el Parlamento de La Rioja en diciembre de 2022, posteriormente a la redacción de este artículo.



LA RIOJA

principales o la principal área de pastoreo trashumante de toda La Rioja. La correlación no es casual, obedece al hecho de que los pastos que crecen sobre suelos calizos son más nutritivos, abundantes y de mejor calidad que los que lo hacen en otra clase de terrenos.

PRIMERA JORNADA EMBALSE DE MANSILLA – VALLE DEL PORTILLA – REFUGIO DE HOYO BELLIDO)

Siguiendo el mismo itinerario descrito en un artículo anterior (“Portilla: el valle secreto”, Pyrenaica 234), partimos de Santa Gadea (0 h 00 min) decididos a remontar la totalidad del valle por el que discurre este afluente del Najerilla. Avanzamos por terreno conocido y después de dos horas de camino, llegamos a la majada y corrales de La Capellanía (2 h 00 min). Durante los meses de mayo y junio de 2021, este lugar no solamente albergó a más de un centenar de campistas pertenecientes a un grupo denominado “The Rainbow Family” sino que, además, suscitó todo tipo de especulaciones en los principales me-

Muela de Urbión (valle de Urbión)



dios de comunicación. Tras su desalojo por la Guardia Civil, el paraje ha recuperado su estado original.

Aguas arriba, en la confluencia de los arroyos que vierten sus aguas al Portilla, sobre un promontorio, localizamos un antiguo refugio de ICONA (4 h 00 min) que ha sido renovado recientemente. El refugio de La Isla se encuentra más arriba, a media hora de este último, pero se

hallaba en un estado tan deplorable que, si decidimos pernoctar, la mejor opción es hacerlo aquí mismo. La barrera o banda caliza a la que aludíamos más arriba acaba de hacer acto de presencia. La prueba la hallamos en que las rocas, antes grises, han adquirido un inconfundible color blanquecino y en el perfil romo de las montañas que vemos a nuestro alrededor, desde el cerro Cantincao, a la de-



recha, hasta Campolengo y Navilla, a la izquierda. Esta formación geológica tan característica nos va a acompañar durante el resto del camino.

Esta formación geológica tan característica nos va a acompañar durante el resto del camino

Dejando atrás La Isla (4 h 30 min) y su modelado glacial, giramos a la izquierda, en dirección E, atravesamos un regato para pasar al lado opuesto y ascendemos hasta el collado y abrevadero de Campolengo (5 h 10 min). Desde aquí y sin perder altitud, continuamos hacia el E tomando como referencia un cerro pelado formado por la superposición de un número indeterminado de estratos calizos. Un rápido descenso nos

conduce al valle del Urbión y a la cabaña de Hoyo Bellido (6 h 05 min) en la que pasaremos la noche. Ésta se localiza en la margen derecha del río, junto a un grupo de corrales en ruinas y al pie del arroyo seco que nace en un pequeño valle lateral. El lugar, además de ser relativamente confortable, es visitado periódicamente por ganaderos y excursionistas y cuenta con hogar, una tarima elevada y leña abundante.

SEGUNDA JORNADA HOYO BELLIDO – PUERTO DE MONTENEGRO – PEÑA HINCADA

Después de una noche sin incidencias, dejamos el refugio a primera hora de la mañana (0 h 00 min) con el fin de repetir la misma ruta que realizamos hace ya algún tiempo. La primera operación consiste en ganar altura por la ladera en la que se levanta el edificio en el que hemos pernoctado. La fuerte pendiente inicial nos conduce a Hoyo Bellido, un rellano tapizado de hierba y rodeado de fuertes pendientes. Toca girar a la izquierda, hacia el E, y remontar una sección de roca caliza en la que, con algo de suerte, podremos

localizar algún que otro fósil. Poco a poco vamos ganando altura mientras el valle y la Muela de Urbión van quedando a nuestras espaldas. De repente, como salido de la nada aparece un rebaño de ovejas que sólo piensa en llenarse el estómago del forraje que crece en las faldas del pico Ochernas. La última pendiente herbosa nos conduce a una pista (1 h 00 min) y al collado que separa Viniegra de Arriba de Viniegra de Abajo y el Alto de los Tres Mojones del de la Traición. Como tenemos tiempo y la meteorología es excelente, aprovechamos la ocasión para visitar esta última cumbre (1 h 25 min) que presume de ser la más alta de todas las de este mismo cordal (1909 m).

Después de una noche sin incidencias, dejamos el refugio a primera hora de la mañana

De vuelta al collado (1 h 40 min), recuperamos la mochila y descendemos a un nuevo valle más hermoso y bucólico, si cabe, que el que acabamos de abandonar. No hay signos de vida ni presente ni pasada. A la derecha se extiende un bosque de pinos de repoblación que limita con la provincia de Soria; a la izquierda, una sucesión de pendientes descarnadas y desprovistas de árboles. Al cabo de un rato, cruzamos un regato llamado Ormazal (2 h 10 min) que

Ascendiendo por las faldas del pico Ochernas



también da nombre a la cabaña - refugio que se observa en la orilla opuesta. Este y otros topónimos existentes en las inmediaciones (Gurrincheta, Artámila, Aranguencia, Alrucea, Sanchorena, Urbión, Hormazas, Facundia...) parecen indicar que la trashumancia fue una actividad en la que, además de castellanos y extremeños, también participaron pastores de otras procedencias. Por cierto, según el catastro del Marqués de la Ensenada, Viniegra de Arriba, el municipio en el que acabamos de entrar, contaba a mediados del siglo XVIII con 20 200 cabezas de ganado trashumante (19 100 merinas y 1100 cabras) que eran atendidas por 3 mayores, 37 rabadanes, 22 temporeros y 32 zagales. Dos siglos des-



Peña Hincada y Cabezo del Santo

pués, antes del estallido de la Guerra Civil, no quedaban más de cuatro o cinco rebaños y a finales de los 80, solamente uno integrado por 4500 ovejas.

El refugio en cuestión, se encuentra a 1556 metros, sobre un altozano, y, a pesar de estar bastante descuidado, puede servir de base para explorar esta zona. Sin descender un metro, proseguimos en dirección E cruzando la cabecera de dos nuevos regatos: Majada del Acebo y Sanchorena. Las praderas se suceden sin interrupción. Finalmente, un breve repecho nos conduce hasta una pista y una alambrada de espino que marcan los confines de La Rioja (3 h 25 min). Perdemos altura progresivamente por lo que una vez fue un "cordel de ganados" y en algo más de una hora arribamos al puerto de Montenegro (4 h 40 min) y al cartel que anuncia su altura (1592 m) y el inicio de la provincia de Soria.

Camino adelante, sin apartarnos de la pista, alcanzamos el Mojón de los Cuatro Términos, enésimo collado del día (5 h 10 min), desde el que divisamos el Cabezo del Santo y el tramo que debemos salvar para llegar a la cabaña de La Lastrilla. Una vez aquí (5 h 40 min), advertimos que el edifi-

cio, además de haber sido edificado junto a un afloramiento calizo y estar desprovisto de colchones, deja bastante que desear. Así las cosas, tomamos la decisión de continuar regresando al cordal que antes habíamos abandonado y en el que confluyen la Sierra de Castejón y la de las Hormazas. Una hora y pico después (7 h 00 min) hollamos el puerto de Peña Hincada o Canto Hincado (1412 m). Este lugar, citado por primera vez en un documento del año 1016 firmado por Sancho el Mayor, debe su nombre a la existencia de un mojón o menhir de mediano tamaño. En la actualidad, sirve para delimitar y separar las jurisdicciones de Brieva y Ortigosa de Cameros pero en el pasado fue una de las referencias que se emplearon para fijar las fronteras medievales del Reyno de Navarra.

Fue una de las referencias que se emplearon para fijar las fronteras medievales del Reyno de Navarra

Para dormir, descendemos hacia Brieva escoltados por las balizas señaladas con

pintura roja y blanca del GR-190 (Altos Valles Ibéricos) y en cinco minutos más (7 h 05 min) nos presentamos ante la puerta de La Casa de la Mina, un refugio de pequeñas dimensiones y sin equipar que, al menos, cuenta con fuego bajo y una fuente que brota de sus mismísimos cimientos.

TERCERA JORNADA REFUGIO DE LA MINA – BRIEVA – VENTROSA – VINIEGRA DE ABAJO – EMBALSE DE MANSILLA

Como nuestra intención es regresar al lugar en el que abandonamos el coche, las opciones que se nos presentan son muy limitadas. La más razonable consiste en seguir el trazado de la tercera etapa del GR-190, la que comunica Ortigosa o Villoslada con Viniegra de Abajo pasando por Brieva y Ventrosa. De este modo, abreviaremos el recorrido y tendremos la oportunidad de conocer unas localidades que destacan por su arquitectura serrana y el buen estado de conservación de la mayor parte

de sus construcciones. En ellas todavía se puede pasear por unas calles empedradas en las que sus inmuebles demuestran que su pasado fue bastante más próspero que su presente.

Un camino empedrado y sinuoso que se adapta a la orografía del terreno

Dejando atrás el edificio en el que hemos pasado la noche y la galería minera de la que tomó su nombre (0 h 00 min), perdemos altura por un camino zigzagueante y bordeado de arbustos hasta las Tenadas de la Escalera (0 h 15 min), un conjunto de rediles y edificios auxiliares situados en la parte alta de un desfiladero. El descenso prosigue pero, durante unos centenares de metros, lo hace por un camino empedrado y sinuoso que se adapta a la orografía del terreno y al desfiladero calizo por el que discurre. Esta adaptación toma la forma de una escalera caracterizada por el espacio existente entre peldaño y peldaño. Rápidamente alcanzamos el fondo del cortado y avanzando por la orilla derecha del río Berrinche, salimos a una pista (0 h 40 min) y a la carretera asfaltada procedente

de Brieva (0 h 55 min).

